



# Etxalarko Ibilbideak



**“USATEGIETA” SL NA-2**

**I.I.D.E.:** .

**Luze.: 5,300 km | Des.: 125 m | Zail.: 1 | Den.: 2 o.**

*Erdi Arotik dokumentatua dagoen uso ehiza sistema honen funtzionamendua ezagutzeko ibilbidea, Lapurdiko kostaldeko eta Etxalarko mendietako ikuspegi apartak eskaintzen dituena. Ibilbide zirkularra (lehenengo 600 metroak joan-etorrikoak dira), Lizaietako eta Nabarlatsako mendi lepoen artean, lehenengo tarte iparraldeko mendi bizkarretik eta itzulia, berriz, hegoaldeko magaleko babesean egiten da.*

**OHARRA:** *Urrian, uso pasearen garaian, lepoz lepoko bidea itxita egoten da. Ibilbidea magaleko xendatik egin behar da, joan-etorria bide beretik eginez.*

## **IBILBIDEA**

- 0,000 km: **LIZAIETAKO LEPOA** (edo Lizarrieta, 440 m), Etxalar-Sara errepidean. Bertan aparkaleku zabala, ostatua eta aduana zeneko eraikuntza. GR-11 “Pirinioko Ibilbidea”ren pasagunea: ezkerretik (I.M.) Beratik datorren pista. Eskuineko (H-E) pistatik igoko gara, GR-11aren Elizondo alderako ibilbideari segituz; 250 metrora, bide bazterrean, lehenengo usategietako postua edo trepa ikusiko da.
- 0,625 km: Txorilepoa (470 m), belartsua eta zabala. Bidea bitan banatzen da: eskuinetik, “Usategieta” ostatura doan bidexka (itzultzeko bidea); ezkerretik segi, pista nagusitik (OHARRA: ehiza garaian bide hau itxita egoten da eta eskuineko bidexkatik joan behar da, joan-etorria bide beretik eginez).
- 0,925 km: **USATEGIETAKO LEPOA** (455 m), pago handien artean. Bertan, urrian eta Erdi Arotik dokumentatua dagoen tradizio bati jarraituz, usoak sare handi baten bidez harrapatzen dituzte. Horren lekukoak ditugu eskuinean dagoen ehiztarien etxola (handik gertu “Usategieta” ostatura dugu) eta metro batzuk aurrerago ezkerrean dagoen harrizko dorrea. Pista nagusitik jarraitu.
- 1,700 km: Lakaingo lepoa (475 m), zabal eta belartsua. Eskuinetik Etxalarko bidea elkartzen da (“Orenbenta-Atxuria” PR NA-15 ibilbidea). Pista nagusitik segi.
- 2,420 km: **NABARLATSAKO LEPOA** (474 m) eta 50. mugarria. Bidea bitan banatzen da: ezkerretik, Sarako usategietarako pista; zuzenean, bizkarretik, Atxuria mendirako bidea (PR NA-15 ibilbidearen desbideraketa). Itzulia hasten da: mendi bizkarra utzi eta eskuinera jaitsi, baso aldera, iralekua zeharkatzen duen bidetik.
- 2,650 km: Hariztia eta bidegurutzea. Ezkerretik, beheruntz, GR-11 eta PR NA-15 ibilbideak; eskuinetara jo, mendi magaletik doan bidexka zelaitik. Metro batzuetara, borda eroria; iraleku, haritz eta pago zaharren barnako tarte ederra.
- 3,625 km: Lakaingaineko lepoa (410 m) eta bidegurutzea Etxalartik bizkarrez bizkar datorren bidearekin (“Orenbenta-Atxuria” PR NA-15). Magaletik segi, iparralderantz eta altuera galdu gabe, pago lerro batek babestutako bidetik.
- 4,175 km: Larrasaietseko borda (385 m) eta, ezkerretara, errepidera jaisten den pista. Zuzen segi, igoera labur eta pikoa eginez.
- 4,375 km: “Usategieta” ostatua. Ezkerretik, errepidetik datorren bide asfaltatua; eskuinetik, Usategietako lepora doan bidexka (ehiza garaian itxita). Ostatuaren gainetik bidexka zelai bat hartuko dugu, basotik ateratzen.
- 4,675 km: Txorilepoa (470 m), bertan GR-11 eta etortzeko bidearekin bat egiten dugu.
- 5,300 km: **LIZAIETAKO LEPOA** (440 m), Etxalar-Sara errepidea eta aparkalekua. Ibilbidearen hasiera eta bukaera.

